

ZERGA ARAUDIAREN GAURKOTASUNA


EKONOMIA ETA OGASUN SAILA
ZERGA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARITZA

URTARRILA
2024
01 zk.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



ALHAO


ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN
ALDIZKARI OFIZIALA

ALHAO — 002 zk. — 2024/01/05 — (PFEZ) — 

BIGARREN DIPUTATU NAGUSIORDE ETA OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILEKO FORU DIPUTATUAREN 832/2023 FORU AGINDUA, ABENDUAREN 22KOA. ALDATZEA ABENDUAREN 20KO 772/2021 FORU AGINDUA, ZEINAREN BIDEZ ONESTEN BAITA 190 EREDUA, PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGAN JASOTZEN DIREN ATXIKIPEN ETA KONTURAKO SARREREN (LANAREN ETEKINENAK, ZENBAIT JARDUERA EKONOMIKOENAK, SARIENAK ETA ERRENTA EGOZKETA BATZUENA) URTEKO LABURPENARENA. HORREZ GAIN, DISEINU FISIKO ETA LOGIKOAK ETA LANAREN ETEKINENEN, JARDUERA EKONOMIKOEN ETA SARIEN ZIURTAGIRIARI BURUZKO 10-T EREDUA ORDENADOREZ ZUZENEAN IRAKURTZEKO MODUKO FITXATEGIAK JARTZEKO.

Zenbait aldaketa egiten dira abenduaren 20ko 772/2021 Foru Aginduan, zeinaren bidez onesten baita 190 ereduak, pertsona fisikoek errentaren gaineko zergako atxikipen eta konturako sarreraren urteko laburpenaren aitortpenarena (lanaren eta jardueraren ekonomikoek etekinak, sariak eta ondare-irabazi eta errenta-egozketa jakin batzuk), batez ere argiago egiteko helburuz eta gainerako zerga-administrazioekin informazio truke egokia errazteko, eta, ondorioz, zerga-kudeaketa hobetzeko.

Horrela, foru agindu honek erabat integraturik arautzen du orain arte indarrean dagoen eta 190 ereduaren informazio aitortpenari aplikatzeko zaion araudia.

ALHAO — 002 zk. — 2024/01/05 — (BESTE BATZUK) — 

824/2023 FORU AGINDUA, ABENDUAREN 21EKOA. 2000KO ABENDUAREN 11KO 880 FORU AGINDUA ALDATU DA, ZEINAREN BIDEZ ONESTEN BAITA 345 AITORPEN EREDUA, BORONDATEZKO GIZARTE AURREIKUSPENERAKO ERAKUNDEEK ETA ERAKUNDE HORIETAKO BAZKIDE BABESLEEK, PENTSIIO FUNTSEN ERAKUNDE KUDEATZAILEEK, PENTSIIO PLANEN SUSTATZAILEEK, GIZARTE AURREIKUSPENERAKO ORDEZKO SISTEMEI HELDU DIETEN ENPRESEK EDO ERAKUNDEEK ETA GIZARTE AURREIKUSPENERAKO MUTUALITATEEK URTERO AURKEZTU BEHAR DUTEN AITORPEN-EREDUA, HAIN ZUZEN, ETA BARNE-ORRIAK ORDENADOREZ ZUZENEAN IRAKURTZEKO EUSKARRIEZ ORDEZKATZEKO BETE BEHAR DIREN BALDINTZAK ETA DISEINU FISIKOAK ETA LOGIKOAK.

2000ko abenduaren 11ko 880 Foru Agindua aldatu da. Horren bidez, 345 eredia onesten da; hau da, honako hauek urtero aurkeztu behar duten aitorpen eredia: borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeek eta erakunde horietako bazkide babesleek, pentsio funtsen erakunde kudeatzaileek, pentsio planen sustatzaileek, gizarte aurreikuspeneko ordezko sistemei heldu dieten enpresek edo erakundeek, eta gizarte aurreikuspeneko mutualitateek. Aldaketa hori, funtsean, gainerako zerga administrazioekin informazio truke egokia izateko eta, ondorioz, zerga kudeaketa hobetzeko beharrezkoak diren arau erreferentziak eguneratzeko eta egokitzapen teknikoak egiteko beharrari zor zaio.

Horrela, foru agindu honek erabat integraturik arautzen du orain arte indarrean dagoen 345 ereduaren informazio aitorpenari aplikatzekoa zaion araudia.

ALHAO — 004 zk. — 2024/01/10 — (ZZBB) — 

834/2023 FORU AGINDUA, ABENDUAREN 29KOA. ALDATZEA MARTXOAREN 8KO 160/2011 FORU AGINDUA, ZERGADUNEN ERROLDA BAKARREKO ALTA, ALDAKETA ETA BAJA AITORPENEN 036, 037 ETA 009 EREDUAK ONESTEN DITUENA.

Martxoaren 8ko 160/2011 Foru Aginduaren bidez, Arabako Foru Aldundiaren Zergadunen Errolda Bakarreko alta, aldaketa eta baja aitorpenen 036, 037 eta 009 ereduak onetsi ziren.

Abenduaren 19ko 49/2023 Foru Dekretuak aldatu egiten du zergadunen errolda eta horren inguruko betebeharrak arautzen dituen urtarrilaren 25eko 3/2011 Foru Dekretua.


Zehatz-mehatz, foru dekretu honek bere lehenengo artikuluan arautzen duena da alkoholaren eta edari eratorrien gaineko zergaren edo hidrokarbuoen gaineko zergaren eremu objektiboetan sartutako produktuak gordailu fiskaletatik ateratzen dituzten pertsonen edo erakundeen erregistroa, eta erregistro hori honako hauek osatuko dute: alkoholaren eta edari eratorrien gaineko zergaren edo hidrokarbuoen gaineko zergaren eremu objektiboetan sartutako produktuak gordailu fiskaletatik ateratzen dituzten pertsonen edo erakundeek, edozein dela ere haien egoera.

Era berean, Berotegi Eftukto Gas Fluordunen gaineko Zergaren lurralde erregistroak, Berrerabili Ezin Diren Plastikozko Ontzien gaineko Zerga bereziaren lurralde erregistroak eta Hondakinak Zabortegietan Uztearen, Erraustearen eta Hondakinen Baterako Errausketaren gaineko Zergaren lurralde erregistroak sartu dira.

Bestalde, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 56 bis artikuluan aipatzen den langile lekualdatuentzako araubide berezia aplikatzea aukeratu nahi duten zergadunek aukera hori baliatu beharko dute hura aplikatu nahi duten zergaldi bakoitzari dagokion zerga horren autolikidazioa aurkeztean; horregatik, 009 errolda ereditik "Espainiako lurraldera lekualdatutako langileentzako araubide bereziaren jakinarazpena" ezabatu behar da.

Foru agindu honen xedea da zergadunen errolda bakarraren alta, aldaketa eta bajako errolda aitorpenen 036 eta 037 eruedetan sartzea alkoholaren eta edari eratorrien gaineko zergaren edo hidrokarbuoen gaineko zergaren eremu objektiboetan sartutako produktuak gordailu fiskaletatik ateratzen dituzten pertsonen edo erakundeen erregistroan sartzeko eta baja emateko eskaera, bai eta Berrerabili Ezin Diren Plastikozko Ontzien gaineko Zerga bereziaren lurralde erregistroan eta Berotegi Eftukto Gas Fluordunen gaineko Zergaren lurralde erregistroan inskribatzeko eskaerak ere, eta 009 ereditik kentzea Espainiako lurraldera lekualdatutako langileentzako araubide bereziaren jakinarazpena.


Ondorioz, foru agindu honek aldatu egiten du Arabako Foru Aldundiaren Zergadunen Errolda Bakarreko alta, aldaketa eta baja aitorpenen 036, 037 eta 009 ereduak onesten dituen Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren martxoaren 8ko 160/2011 Foru Agindua.

ALHAO — 006 zk. — 2024/01/15 — (PFEZ, SZ, E-EEZ) — 

BIGARREN DIPUTATU NAGUSIORDE ETA OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILEKO FORU DIPUTATUAREN 835/2023 FORU AGINDUA, ABENDUAREN 29KOA. ALDATZEA ABENDUAREN 27KO 761/2011 ETA ABENDUAREN 20KO 773/2021 FORU AGINDUAK, HURRENEZ HURREN ONESTEN DITUZTENAK 193 ETA 296 EREDUAK.

Abenduaren 27ko 761/2011 eta abenduaren 20ko 773/2021 Foru Aginduak aldatzen dira. Abenduaren 27ko 761/2011 Foru Aginduaren bidez, 193 eredia onetsi zen, hau da, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kapital higigarriaren zenbait errendimenduren eta sozietateen gaineko zergaren eta establezimendu iraunkorrei dagokien ez-egoiliarren gaineko zergaren zenbait errentaren atxikipenen eta konturako sarreraren urteko laburpenaren eredia. Abenduaren 20ko 773/2021 Foru Aginduaren bidez, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren 296 eredia onetsi zen. Oraingo aldaketa hau gainerako zerga administrazioekin informazio truke egokia errazteko eta ahalbidetzeko beharrezkoak diren arau erreferentziak eguneratzeko eta egokitzapen teknikoak egiteko egiten da, eta, ondorioz, zerga kudeaketa hobetzeko.


Horrela, foru agindu honek erabat integraturik arautzen du orain arte indarrean dagoen 193 eta 296 ereduaren informazio aitorpenari aplikatzekoa zaion araudia.

ALHAO — 007 zk. — 2024/01/17 — (BESTE BATZUK) — 

BIGARREN DIPUTATU NAGUSIORDE ETA OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILEKO FORU DIPUTATUAREN 14/2024 FORU AGINDUA, URTARRILAREN 11KOA. ALDATZEA MARTXOAREN 9KO 133/2005 ETA IRAILAREN 27KO 529/2017 FORU AGINDUAK, HURRENEZ HURREN ONESTEN DITUZTENAK 198 ETA 289 EREDUAK.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren martxoaren 9ko 133/2005 Foru Aginduaren bidez 198 eredu onetsi zen (finantza aktiboekin eta beste balore higikor batzuekin egindako eragiketen urteko aitortpena egitekoa), eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren irailaren 27ko 529/2017 Foru Aginduaren bidez, berriz, 289 eredu (finantza kontuen urteko informazio aitortpena egitekoa elkarrekiko laguntzaren esparruan); gainera, haren bidez, beste zerga arau batzuk aldatzen dira. Foru agindu horiek aldatu badira funtsean izan da gainerako zerga administrazioekin informazio truke egokia errazteko eta mantentzeko beharrezkoak diren arau erreferentziak eguneratzeko eta egokitzapen teknikoak egiteko, eta, ondorioz, zerga kudeaketa hobetzeko.

Horrela, foru agindu honek erabat integraturik arautzen du orain arte indarrean dagoen 198 eta 289 ereduen informazio aitortpenari aplikatzekoa zaion araudia.

ALHAO — 007 zk. — 2024/01/17 — (BESTE BATZUK) — 

BIGARREN DIPUTATU NAGUSIORDE ETA OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILEKO FORU DIPUTATUAREN 13/2024 FORU AGINDUA, URTARRILAREN 11KOA. ALDATZEA EKAINAREN 1EKO 318/2009, ABENDUAREN 15EKO 810/2014 ETA OTSAILAREN 17KO 98/2014 FORU AGINDUAK, HURRENEZ HURREN ONESTEN DITUZTENAK 189, 270 ETA 720 EREDUAK.

Ekainaren 1eko 318/2009 Foru Aginduaren bidez 189 eredu onetsi zen (balore, aseguru eta errentei buruzko urteko informazio aitortpenarena); abenduaren 15eko 810/2014 Foru Aginduaren bidez, berriz, zenbait loteria eta apustu sariren gaineko karga berezia. Atxikipenen eta konturako diru sarreren urteko laburpena; bukatzeko, otsailaren 17ko 98/2014 Foru Aginduaren bidez, 720 eredu onetsi zen (atzerrian diren ondasun eta eskubideei buruzko informazio aitortpena). Foru arau horiek aldatu badira funtsean izan da gainerako zerga administrazioekin informazio truke egokia errazteko eta mantentzeko beharrezkoak diren arau erreferentziak eguneratzeko eta egokitzapen teknikoak egiteko, eta, ondorioz, zerga kudeaketa hobetzeko.

Horrela, foru agindu honek erabat integraturik arautzen du orain arte indarrean dagoen 189, 270 eta 720 ereduen informazio aitortpenari aplikatzekoa zaion araudia.



BAO

BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALA

BAO — 001 zk. — 2024/01/02 — (BESTE BATZUK) —

OGASUN ETA FINANTZEN FORU DIPUTAUAREN 696/2023 FORU AGINDUA, ABENDUAREN 18KOA, MARTXOAREN 31KO 632/2017 FORU AGINDUA ALDATZEN DUENA. FORU AGINDU HORREN BIDEZ, 289 EREDUA ONESTEN DA, ELKARRI EMAN BEHARREKO LAGUNTZAREN ESPARRUAN FINANTZA-KONTUEI BURUZ URTERO EGIN BEHARREKO AITORPEN INFORMATIBOA EGITEKO DENA.

Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren martxoaren 31ko 632/2017 Foru Aginduaren bidez, 289 eredia onetsi zen, elkarri eman beharreko laguntzaren esparruan finantza-kontuei buruz urtero egin beharreko aitorpen informatiboari buruzkoa.

Aipatutako 632/2017 Foru Aginduaren I. eta II. eranskinetan bi zerrenda jasotzen ziren: batetik, finantza erakundeek 289 eredian aitortu behar dituzten egoiliar fiskalen herrialde edo jurisdikzioen zerrenda, eta, bestetik, azaroaren 13ko 1021/2015 Errege Dekretuaren eranskineko VIII. sekzioaren D.4 apartatuaren arabera «jurisdikzio partehartzailatzat» jotzen diren herrialde edo jurisdikzioen zerrenda. Ondoz ondoko foru-aginduen bidez, 2018ko ekitalditik 2023ra egokitzuz joan dira aipatu diren I. eta II. eranskinetako zerrendak ekitaldi horietarako informazioa gurekin trukatu behar zuten herrialdeen zerrendara.

Foru-agindu honen bidez, martxoaren 31ko 632/2017 Foru Agindua ere aldatu nahi da, I. eta II. eranskinen edukia egokitzeko informazioa trukatzeko konpromisoa hartu duten herrialdeen egungo egoerara; hain zuzen, 2024ko ekitalditik aurrera informazioa gurekin trukatu duten herrialdeak sartuko dira zerrendan.

BAO — 001 zk. — 2024/01/02 — (PFEZ, SZ) —

OGASUN ETA FINANTZEN FORU-DIPUTAUAREN 695/2023 FORU AGINDUA, ABENDUAREN 18KOA. HONEN BIDEZ, ALDATU EGITEN DIRA, BATETIK, OGASUN ETA FINANTZEN FORU-DIPUTAUAREN OTSAILAREN 17KO 515/2009 FORU AGINDUA, ZEINAREN BIDEZ BALORE, ASEGURU ETA ERRENTEI BURUZKO URTEKO AITORPEN INFORMATIBOA EGITEKO 189 EREDUA ONARTZEN BAITA, ETA, BESTETIK, OGASUN ETA FINANTZEN FORU-DIPUTAUAREN AZAROAREN 11KO 2282/2013 FORU AGINDUA, ZEINAREN BIDEZ ONESTEN BAITIRA 720 EREDUA -ATZERRIAN DIREN ONDASUN ETA ESKUBIDEEI BURUZKO AITORPEN INFORMATIBOA EGITEKOA-ETA EREDU HORI TELEMATIKOKI AURKEZTEA.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauak Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-sistemaren printzipioak eta arau juridiko orokorrak ezartzen ditu, eta hura garatzeko behar diren xedapen guztiak emateko gaitzen du Bizkaiko Foru Aldundia. Gaikuntza hori aplikatzeko eta informazio-betebeharrak arautzen dituzten 92. eta 93. artikulua garatzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak, besteak beste, abenduaren 22ko 205/2008 Foru Dekretua onartu zuen, zeinaren bidez onetsi baitzen Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-betebehar formalak araupetzen dituen Araudia. Zehazki, VI. tituluan jasotzen ditu araudi horrek zerga-betebehar formalak.

Lehen aipatutako araudiaren 50. artikulua balore, aseguru eta errentei buruzko informazioa emateko betebeharrak arautzen du. Hala, bada, artikulua hori garatzeko, otsailaren 17ko 515/2009 Foru Agindua eman zen, balore, aseguru eta errentei buruzko urteko aitorpen informatiboa egiteko 189 eredia onesteko.

Zergen arloko zenbait aldagaitza egiten dituen uztailaren 20ko 8/2022 Foru Arauak, Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Araua aldatu du, honako hau gehitzeko: nola baloratu behar diren bizi-aseguruak aseguru-hartzaileak erreskate-eskubidea baliatzeko ahalmenik ez badu, hala saihestu ezin izateko ondare-eduki zalantzagabea duten bizi-aurrezki-aseguruengatik tributazioa. Oro bat, balorazio-arau berrira ezarri da bizi-aseguru batetik eratorritako aldi baterako edo biziarteko errentak jasotzen diren kasuetarako.

Halaber, Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 4ko 78/2023 Foru Dekretuaren bidez, aldagaitza egin dira Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-betebehar formalak araupetzen dituen Araudian, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudian, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Erregelamenduan, eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergen Kudeaketari buruzko Araudian. Bada, foru-dekretu horren bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-betebehar formalak araupetzen dituen Araudiaren 50. eta 53. ter artikuluetan sartu da ondarearen gaineko zergaren araudian egindako aldagaitza aipatuaren ondoriozko erregelamendu-aldagaitza.

Araudi-aldagaitza horren ondorioz, aldatu egin behar dira 189 eredia («Balore, aseguru eta errentei buruzko urteko aitorpen informatiboa») eta 720 eredia («Atzerrian diren ondasun eta eskubideei buruzko aitorpen informatiboa») arautzen dituzten foru-aginduak, eredu horietan eskatzen den informazioa onartutako araudi berrira egokitzeko.

189 ereduari dagokionez, foru-agindu honen bidez aldatu egiten dira 2. motako erregistroaren diseinuak (aitortuaren erregistroa). Alde batetik, «Balore gakoa» eremua aldatzen da, erreskate-baliorik gabeko bizi-aseguruari buruzko informazioa eta erreskate-baliorik gabeko bizi- edo baliaezintasun-aseguruetatik eratorritako aldi baterako edo biziarteko errentei buruzko informazioa emateko beste gako bat sartzeko, F gakoa; oro bat, «Balorazioa» eremua aldatzen da, zehazteko ezen, F gako berrira jarri bada, abenduaren 31ko zuzkidura matematikoaren balioa adierazi behar dela.

Bestalde, arau-erreferentziak eguneratu dira eremu jakin batzuetan, eta «Baloreen kopurua» eremuko posizio-kopurua handitu da.

720 ereduari dagokionez, 2. motako erregistro-diseinuak aldatzen dira (Xehetasun erregistroa), haren edukia egokitzeko Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-betebehar formalak araupetzen dituen Araudiaren 53. ter artikulua idazketa berrira. Horretarako, «1: balorazioa: saldoa edo balioa abenduaren 31n; saldoa edo balioa iraungitze egunean; eskuratze balioa» eremua aldatzen da, zehazteko «ondasun edo eskubide motaren gakoa» eremuak «S» balioa hartzen duen kasuetan (bizi- edo baliaezintasun-aseguruari buruzkoa eta atzerrian diren aseguru-entitateek aseguratzen

duten bizi-aseguru batetik eratorritako aldi baterako edo biziarteko errenitei buruzkoa), abenduaren 31ko zuzkidura matematikoaren berri emango dela, baldin eta aseguru-hartzaileak ez badu ahalmenik egun horretan erreskate-eskubide osoa baliatzeko (aldi baterako aseguruaren kontratuak izan ezik, baldin eta heriotza- edo baliaezintasun-kasuetarako prestazioak edo bestelako arrisku-berme osagarriak besterik ez dute jasotzen).

Ondorioz, foru-agindu honen bidez, aldatu egiten dira Ogasun eta Finantzen foru-diputatuaren otsailaren 17ko 515/2009 Foru Agindua, zeinaren bidez balore, aseguru eta errenitei buruzko urteko aitorten informatiboa egiteko 189 ereduaren onartzen baita, eta Ogasun eta Finantzen foru-diputatuaren azaroaren 11ko 2282/2013 Foru Agindua, zeinaren bidez onesten baitira 720 ereduaren atzerrian diren ondasun eta eskubideei buruzko aitorten informatiboa egiteko- eta eredu hori telematikoki aurkeztea.

BAO — 002 zk. — 2024/01/03 — (PFEZ) —

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN 214/2023 FORU DEKRETUA, ABENDUAREN 28KOA, 2024KO LANAREN ETEKINEI PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGAREN ORDAINKETARAKO APLIKATUKO ZAIZKIEN ATXIKIPEN-EHUNEKOAK ALDATZEN DITUENA.

AKATS ZUZENKETA.

Oker bat sumatu ondoren Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 2023ko abenduaren 30koa, 249 zenbakian, Bizkaiko Aldizkari Ofiziala arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 97/2009 Foru Dekretuko 17. artikuluan esaten duenez, jarraian berriz iragarki osoa argitaratzen da.

BAO — 003 zk. — 2024/01/04 — (A-PZ, PFEZ, SZ, E-EEZ) —

OGASUN ETA FINANTZAKO FORU DIPUTATUAREN 694/2023 FORU AGINDUA, ABENDUAREN 18KOA, HONEN BIDEZ HONAKO FORU AGINDU HAUEK ALDATZEN DIRA: 230/2021 FORU AGINDUA, OTSAILAREN 3KOA, OGASUN ETA FINANTZEN FORU DIPUTATUARENA, ASEGURU-PRIMEN GAINEKO ZERGAREN AUTOLIKIDAZIORAKO 430 EREDUA ONESTEN DUENA; 2136/2016 FORU AGINDUA, ABENDUAREN 5KOA, OGASUN ETA FINANTZEN FORU DIPUTATUARENA (HONEN BIDEZ 188 EREDUA ONESTEN DA, HAU DA, PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA, SOZIJETATEEN GAINEKO ZERGA ETA EZ-EGOILIARREN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA (ESTABLEZIMENDU IRAUNKORRAK) DIRELA-ETA KAPITALIZAZIO-ERAGIKETETATIK ETA BIZI- EDO ELBARRITASUN-ASEGURUEN KONTRATUETATIK DATOZEN KAPITAL HIGIGARRIAREN ERRENTEI EDO ETEKINEI DAGOKIENEZ EGITEN DIREN ATXIKIPENEN ETA KONTURAKO SARREREN URTEKO LABURPENA EGITEKO ERABILI BEHAR DEN EREDUA); 2997/2007 FORU AGINDUA, AZAROAREN 30EKOAK, OGASUN ETA FINANTZEN FORU DIPUTATUARENA, 187, 188, 193 ARRUNTA ETA ERRAZTUA, 194, 196 ETA 198 EREDUAK ONESTEN DITUENA; 2282/2016 FORU AGINDUA, ABENDUAREN 23KOA, OGASUN ETA FINANTZEN FORU DIPUTATUARENA (HONEN BIDEZ FINANTZA-AKTIBOekin ETA BESTE BALORE HIGIGARRI BATZUEKIN EGINDAKO ERAGIKETEN URTEKO AITORPENA EGITEKO 198 EREDUA ONESTEN DA).

Zergen kudeaketa etengabe hobetuko bada, ezinbestekoa da horretarako behar den informazioa ahalik zehatzena izatea. Horregatik, zenbait gauza eguneratu behar dira informazioa eman beharri buruzko arautegian. Jarrian, foru agindu honetako aldaketa nagusiak zehazten dira.

Lehenbizi, hileko autolikidaziorako 430 eredu eguneratu behar denez, eta zergen arloko betebeharrak hori betetzen laguntzeko, 430 eredu berria onesten da, otsailaren 3ko 230/2021 Foru Aginduaren eranskinekoaren ordezkoa izan dadin. Ondoren, honako foru agindu hauek aldatzen dira: 2136/2016 Foru Agindua, abenduaren 5koa, Ogasun eta Finantzen foru diputatuarena (honen bidez 188 eredu onesten da, hau da, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga, Sozietateen gaineko Zerga eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga (establezimendu iraunkorrak) direla-eta kapitalizazio-eragiketetatik eta bizi- edo elbarritasun-aseguruaren kontratuetatik datozen kapital higigarriaren errenitei edo etekinei dagokienez egiten diren atxikipenen eta konturako sarrerren urteko laburpena egiteko erabili behar den eredu); 2997/2007 Foru Agindua, azaroaren 30koa, 194 eredu onesten duena (establezimendu iraunkorrek, besteren kapitalen erakarketa eta erabilera ordezkatzen dituzten edozein motatako aktiboen eskualdaketa, amortizazio, itzulketak, truke edo bihurtetaren ondoriozko higikorren kapitalaren etekin nahiz errenitei doazkiela, Pertsona Fisikoen Errentaren gainerako Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren konturako sarrerren eta atxikipenen urteko laburpena egiteko).

Bi eredu horien aldaketaren helburua da eredu horien erregistroen diseinuak aldatzea honako eremu hauen arau-aipamenak eguneratzeko: «Aitortzailearen IFZ», «Aitortuaren IFZ» eta «Legezko ordezkarriaren IFZ». Azkenik, Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren abenduaren 23ko 2282/2016 Foru Agindua, finantza-aktiboekin eta beste balore higigarri batzuekin egindako eragiketen urteko aitortpena egiteko 198 eredu onesten duena, aldatzen da. Aldaketaren lehen helburua da ereduaren erregistroaren diseinuetan zenbait aldaketa egitea honako honen ondoriozko konpentsazioen eta zehapenen berri eman ahal izateko: Europako Batzordearen 2018/1229 (EB) Erregelamendu Eskuordetua, 2018ko maiatzaren 25koa, zeinaren bidez osatzen baita Europako parlamentuaren eta Kontseiluaren 909/2014 (EB) Erregelamendua likidazioaren diziplinari buruzko arau teknikoiei dagokienez. Beste alde batetik, 1416/1991 Errege Dekretua indargabetu da (irailaren 27koa, burtsako eragiketa bereziei eta burtsaz kanpoko kotizatutako baloreen eskualdaketa eta haztatutako batez besteko truke-tasei buruzkoa), eta horren ondorioz ereduaren erregistroaren diseinuetako 2 motako erregistroko (aitortuaren erregistroa) «Eragiketaren gako» eremua aldatzen da B eta U gakoak ezabatzeke, gaur egun ez baitira behar. Gainera, eredu 2 motako erregistroko (aitortuaren erregistroa) «Erlazioaren kodea» eremua ezabatzen da. Halaber, gako berria (L) gehitzen da eredu 2 motako erregistroko (aitortuaren erregistroa) «Balorearen gako» eremuan, diferentzia-kontratuak identifikatzeko. Orobat, posizio gehiago ezartzen dira «Hurrenkera-zenbakia», «Lotutako eragiketaren hurrenkera-zenbakia» eta «Finantza-aktiboen eta beste balore batzuen kopurua» eremuetan, eta zehazten da nola bete behar den «Eragiketaren gastuak» eremua eragiketa batekin lotutako zenbait aitortu daudenean.

BAO — 004 zk. — 2024/01/05 — (PFEZ, SZ, E-EEZ) —

OGASUN ETA FINANTZEN FORU DIPUTATUAREN 703/2023 FORU AGINDUA, ABENDUAREN 20KOA. HONEN BIDEZ, ALDATU EGITEN DIRA, OGASUN ETA FINANTZEN FORU DIPUTATUAREN ABENDUAREN 15EKO 2211/2016 FORU AGINDUA, ZEINAREN BIDEZ 193 EREDUA ONESTEN BAITA -ARRUNTA ETA ERRAZTUA-, PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGAREN KAPITAL HIGIGARRIAREN ZENBAIT ETEKINEN ETA SOZIJETATEEN GAINEKO ZERGAREN ETA EZ-EGOILIARREN ERRENTAREN GAINEKO ZERGAREN (ESTABLEZIMENDU IRAUNKORRAK) ZENBAIT ERRENTAREN GAINEKO ATXIKIPENEN ETA KONTURA EGINDAKO SARREREN URTEKO LABURPENA EGITEKO ERABILI BEHAR DENA, OGASUN ETA FINANTZEN FORU DIPUTATUAREN ABENDUAREN 7KO 2156/2016 FORU AGINDUA, ZEINAREN BIDEZ ONARTZEN BAITA 296 AITORPEN-EREDUA. EZ-EGOILIARREN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA. ESTABLEZIMENDU IRAUNKORRIK GABEKO EZ-EGOILIARRAK. ATXIKIPENEN ETA KONTURAKO SARREREN

URTEKO LABURPENA ETA OGASUN ETA FINANTZEN FORU-DIPUTATUAREN 639/2023 FORU AGINDUA, AZAROAREN 23KOA, OGASUN ETA FINANTZEN FORU-DIPUTATUAREN AZAROAREN 18KO 2942/2009 FORU AGINDUA ALDATZEN DUENA. HAREN BIDEZ, 345 EREDUA ONETSI ZEN, HAUEN URTEKO AITORPENERAKO ERABILI BEHARREKOA: BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENEN ERAKUNDEAK, PENTSIO-PLANAK, SISTEMA ALTERNATIBOAK, GIZARTE-AURREIKUSPENEN MUTUALITATEAK, AURREIKUSPEN-PLAN ASEGURATUAK, AURREZKI SISTEMATIKORAKO BANAKAKO PLANAK, ENPRESEN GIZARTE-AURREIKUSPENEN PLANAK ETA MENDEKOTASUN-ASEGURUAK.

Tributuen kudeaketa etengabe hobetzearren, beharrezkoa da horretarako behar den informazioa ahalik eta zehatzena izan dadin; ildo horretan, zenbait eguneratze egin behar dira informazio-betebehar jakin batzuen ondoriozko informazio-emateari buruzko araudian.

Jarraian, foru-agindu honetan jasotzen diren aldaketa nagusiak zehaztuta daude.

1. artikulua aldatu egiten du Ogasun eta Finantzen foru-diputatuaren 2211/2016 Foru Agindua, abenduaren 15ekoa, zeinaren bidez 193 eredu onesten baita -arrunta eta erraztua- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kapital higigarriaren zenbait etekin eta Sozietateen gaineko Zergaren eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren (establezimendu iraunkorrak) zenbait errentaren gaineko atxikipenen eta kontura egindako sarreraren urteko laburpena egiteko erabili behar dena. Lehenik eta behin, ereduaren erregistro-diseinuen 2. motako erregistroan (Aitortuaren erregistroa), 15. azpigakoa sartu da C hartukizunaren gakoaren barruan, «Izaera» eremuan, egile-eskubideen ustiapenaren lagapenetik eratorritako konturako aurrerakin berri emateko, aurrerakin horiek kapital higigarriaren errendimendutzat hartzen badira eta hainbat urtetan zehar sortuko badira, halakoetan atxikipenaren eta konturako sarreraren ehunekoa txikia baita. Bestalde, ereduaren erregistro-diseinuen 2. motako erregistroan (Aitortuaren erregistroa) beste kategoria bat sartu da «Ordainketa» eremuan, aitortzaileak «B» hartukizunaren gakoarekin eta «06» izaerarekin adierazitako kapital propioak hirugarren batzuei lagatzeagatik lortutako bestelako etekin eta errenten bitartekari gisa egindako ordainketei buruzko informazioa emateko. Halaber, ereduaren erregistro-diseinuen 2. motako erregistroan (Aitortuaren erregistroa) aldaketa tekniko bat egin da «Aitortzailearen izaera» eremuan, ereduaren erregistro-diseinuen 2. motako erregistroko «Aitortzailearen izaera» eremuan, adierazteko eremu horretan «S» jartzen den guztietan «Penalizazioak» eremuan (182-192 posizioak) zeroak jarriko direla.

Azkenik, 2. motako erregistroan (Hartzailearen erregistroa) zenbait eremu sortu dira «Estatuan sartutako atxikipenak eta konturako sarrerak», «Euskal Autonomia Erkidegoko foru-aldundietan sartutako atxikipenak eta konturako sarrerak» eta «Nafarroako Foru Komunitatean sartutako atxikipenak eta konturako sarrerak» bereizirik adierazteko Estatuan, Euskal Autonomia Erkidegoko foru-aldundietan eta Nafarroako Foru Komunitatean izan diren atxikipen eta konturako sarrerari buruzko informazioa, kontuan hartuta zer xedatzen den Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren 30. artikuluko 2. apartatuaren 2. paragrafoa eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Itunaren 22. artikuluko Lau apartatua eta 23. artikuluko Bi apartatua.

2. artikulua, berriz, aldatu egiten du Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren abenduaren 7ko 2156/2016 Foru Agindua, zeinaren bidez onartzen baita 296 aitorten-eredua, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga. Establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarak. Atxikipen eta konturako sarreraren urteko laburpena Zehazki, 296 ereduaren beste eremu bat sortzen da, «Erregistro-identifikatzailea edo ordena-zenbakia» izeneko, eta eranskin bat gehitzen zaio 2. motako erregistroari (Aitortuaren erregistroa) «Estatuan, Euskal Autonomia Erkidegoko foru-aldundietan eta Nafarroako Foru Komunitatean sartutako atxikipenak eta konturako sarrerak» izeneko, Estatuan, Euskal Autonomia Erkidegoko foru-aldundietan eta Nafarroako Foru Komunitatean sartutako atxikipen eta konturako sarrerari buruzko informazioa bereizirik emateko. Eranskin hori bakarrik bete beharko da atxikipenak eta konturako sarrerak eragiketa-bolumenaren proportzioan sartu behar badira, 193. ereduaren aipatutako aldaketarekin bat etorriz.

Azkenik, aipatzekoa da berriki onartu dela azaroaren 23ko Ogasun eta Finantzen foru-diputatuaren 639/2023 Foru Agindua, Ogasun eta Finantzen foru-diputatuaren azaroaren 18ko 2942/2009 Foru Agindua aldatzen duena. Haren bidez, 345 eredu onetsi zen, hauen urteko aitortuenerako erabili beharrekoa: borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeak, pentsio-planak, sistema alternatiboak, gizarte-aurreikuspeneko mutualitateak, aurreikuspen-plan aseguruak, aurrezki sistematikorako banakako planak, enpresen gizarte-aurreikuspeneko planak eta mendekotasun-aseguruak.

Zenbait zehaztasun falta atzeman direnez 1. artikuluko Bat eta Bi ataletako edukian, zuzendu egiten dira, foru agindu honen 3. artikuluan aurreikusitakoaren bidez.

AKATSEN ZUZENKETA

009 ZK. — 2024/01/12 —



Bizkaiko Aldizkari Ofiziala arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 97/2009 Foru Dekretuaren 17. artikuluko 2. zenbakiko 2.2.a) atalak hau ezartzen du: agiriaren zentzua aldatzen ez duten edo testuingurutik argi eta garbi ulertzeko aukera ematen duten akatsak edo akats materialak direnean, baina gerta daitezkeen nahasteak ekiditeko asmoz zuzentzea komeni dela erabakitzen bada, akats horiek zuzendu egingo dira agiria dagokion organo edo erakundeari testua edo testuaren beharrezko zatia, zuzenketak eginda, berriro bidal dezan eskatu ondoren.

Era horretako akatsak antzeman dira foru agindu hauetan. Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren abenduaren 20koa 703/2023 Foru Aginduan. Foru agindu horren bidez, aldatu egiten dira, Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren abenduaren 15eko 2211/2016 Foru Agindua, zeinaren bidez 193 eredu onesten baita -arrunta eta erraztua-, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kapital higigarriaren zenbait etekin eta Sozietateen gaineko Zergaren eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren (establezimendu iraunkorrak) zenbait errentaren gaineko atxikipenen eta kontura egindako sarreraren urteko laburpena egiteko erabili behar dena, bestetik, Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren abenduaren 7ko 2156/2016 Foru Agindua, zeinaren bidez onartzen baita 296 aitorten-eredua. Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga. Establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarak. Atxikipen eta konturako sarreraren urteko laburpena eta, azkenik, Ogasun eta Finantzen foru-diputatuaren 639/2023 Foru Agindua, azaroaren 23koa, Ogasun eta Finantzen foru-diputatuaren 18ko 2942/2009 Foru Agindua aldatzen duena. Haren bidez, 345 eredu onetsi zen, hauen urteko aitortuenerako erabili beharrekoa: borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeak, pentsio-planak, sistema alternatiboak, gizarte-aurreikuspeneko mutualitateak, aurreikuspen-plan aseguruak, aurrezki sistematikorako banakako planak, enpresen gizarte-aurreikuspeneko planak eta mendekotasun-aseguruak.

8. orrialdean, 2. artikuluko Bi atalean:

— Hau dioen lekuan:

«"Gakoa" eremuan zerrendatutako errenta motak (2. motako erregistroko -aitortuaren erregistroa- 100-101 posizioak) honako balioak baditu: "1" balioa (dibidenduak eta erakundeen funts propioetako beste partaidetza errenta batzuk, soilik baldin eta "Ordainketa" eremuak, 2. motako erregistroko (aitortuaren erregistroa) 148 posizioan, 1 balioa hartzen badu), "2" balioa (interesak eta kapital propioak hirugarrenei lagatzearen ziozko beste errenta batzuk, soilik baldin eta "Ordainketa" eremuak, 2. motako erregistroko (aitortuaren erregistroa) 148 posizioan, 1 balioa hartzen badu), "3" - "11" balioak (kanonak), "12" balioa (kapitalizazio eragiketen kapital higigarriaren errendimenduak eta bizitza edo baliazintasun aseguruaren kontratuen errendimenduak), "13" balioa (aurretik aipatu gabeko kapital higigarriaren beste errendimendu batzuk) edo "22" balioa (administratzaileen eta Administrazio Kontseiluetako kideen ordainsariak), Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Itunaren 22. artikuluko Lau atalean eta 23. artikuluko Bi atalean edo Nafarroako Foru Komunitatearekiko Hitzarmen Ekonomikoaren 30. artikuluko 2. atalaren bigarren paragrafoan aipatzen diren errentekin bat datorrelako, "F" bat idatziko da, baldin eta atxikipen sarrerak edo konturako sarrerak Estatuaren eta foru ogasunen artean banatzen badira, eragiketa bolumenaren proportzioan.»

— Hau behar du:

«"Gakoa" eremuan zerrendatutako errenta motak (2. motako erregistroko -aitortuaren erregistroa- 100-101 posizioak) honako balioak baditu: "1" balioa (dibidenduak eta erakundeen funts propioetako beste partaidetza errenta batzuk, soilik baldin eta "Ordainketa" eremuak, 2. motako erregistroko -aitortuaren erregistroa- 148 posizioan, 1 balioa hartzen badu), "2" balioa (interesak eta kapital propioak hirugarrenei lagatzearen ziozko beste errenta batzuk, soilik baldin eta "Ordainketa", eremuak, 2. motako erregistroko -aitortuaren erregistroa- 148 posizioan, 1 balioa hartzen

badu), "3" - "11" balioak (kanonak), "12" balioa (kapitalizazio eragiketen kapital higigarriaren errendimenduak eta bizitza edo baliaezintasun aseguruaren kontratuen errendimenduak), "13" balioa (aurretik aipatu gabeko kapital higigarriaren beste errendimendu batzuk), "22" balioa (administratzaileen eta Administrazio Kontseiluak kideen ordainsariak) edo, ordaintzailea pertsona juridikoa edo establezimendu iraunkorra bada, errenta bat bi lurraldeetan aldi berean lortu dela pentsa badaiteke; bat datorrelako Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Itunaren 22. artikulua Lau atalean eta 23. artikulua Bi atalean edo Nafarroako Foru Komunitatearekiko Hitzarmen Ekonomikoaren 30. artikulua 2. ataleko bigarren paragrafoan aipatzen diren errentekin bat datorrelako, "F" bat idatziko da, baldin eta atxikipenen sarrerak edo konturako sarrerak Estatuaren eta foru ogasunen artean banatzen badira, eragiketa bolumenaren proportzioan.»

8. orrialdean, 2. artikuluko Hiru atalean:

— Hau dioen lekuan:

«"Gakoa" eremuan zerrendatutako errenta motak (2. mota erregistroko -aitortuaren erregistroko- 100-101 posizioak) honako balioak baditu: "1" balioa (dibidenduak eta erakundearen funts propioetako beste partaidetza errenta batzuk, soilik baldin eta "Ordainketa" eremuak, 2. motako erregistroko -aitortuaren erregistroko- 148 posizioan, 1 balioa hartzen badu), "2" balioa (interesak eta kapital propioak hirugarrenei lagatzearen ziozko beste errenta batzuk, soilik baldin eta "Ordainketa", eremuak, 2. motako erregistroko -aitortuaren erregistroko- 148 posizioan, 1 balioa hartzen badu), "3" - "11" balioak (kanonak), "12" balioa (kapitalizazio eragiketen kapital higigarriaren errendimenduak eta bizitza edo baliaezintasun aseguruaren kontratuen errendimenduak), "13" balioa (aurretik aipatu gabeko kapital higigarriaren beste errendimendu batzuk) edo "22" balioa (administratzaileen eta Administrazio Kontseiluak kideen ordainsariak), Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Itunaren 22. artikulua Lau atalean eta 23. artikulua Bi atalean edo Nafarroako Foru Komunitatearekiko Hitzarmen Ekonomikoaren 30. artikulua 2. ataleko bigarren paragrafoan aipatzen diren errentekin bat datorrelako, "Estatuan, Euskal Autonomia Erkidegoko Foru Aldundietan eta Nafarroako Foru Komunitatean Sartutako Atxikipenak Eta Konturako Sarreraren Banakapenaren Eranskina" beteko da ("F" orri mota), baldin eta atxikipenen sarrerak edo konturako sarrerak Estatuaren eta foru ogasunen artean banatzen badira, eragiketa bolumenaren proportzioan.»

— Hau behar du:

«"Gakoa" eremuan zerrendatutako errenta motak (2. mota erregistroko -aitortuaren erregistroko- 100-101 posizioak) honako balioak baditu: "1" balioa (dibidenduak eta erakundearen funts propioetako beste partaidetza errenta batzuk, soilik baldin eta "Ordainketa" eremuak, 2. motako erregistroko -aitortuaren erregistroko- 148 posizioan, 1 balioa hartzen badu), "2" balioa (interesak eta kapital propioak hirugarrenei lagatzearen ziozko beste errenta batzuk, soilik baldin eta "Ordainketa", eremuak, 2. motako erregistroko -aitortuaren erregistroko- 148 posizioan, 1 balioa hartzen badu), "3" - "11" balioak (kanonak), "12" balioa (kapitalizazio eragiketen kapital higigarriaren errendimenduak eta bizitza edo baliaezintasun aseguruaren kontratuen errendimenduak), "13" balioa (aurretik aipatu gabeko kapital higigarriaren beste errendimendu batzuk), "22" balioa (administratzaileen eta Administrazio Kontseiluak kideen ordainsariak) edo, ordaintzailea pertsona juridikoa edo establezimendu iraunkorra bada, errenta bat bi lurraldeetan aldi berean lortu dela pentsa badaiteke; bat datorrelako Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Itunaren 22. artikulua Lau atalean eta 23. artikulua Bi atalean edo Nafarroako Foru Komunitatearekiko Hitzarmen Ekonomikoaren 30. artikulua 2. ataleko bigarren paragrafoan aipatzen diren errentekin, orduan "Estatuan, Euskal Autonomia Erkidegoko Foru Aldundietan Eta Nafarroako Foru Komunitatean Sartutako Atxikipenak eta Konturako Sarreraren Banakapenaren Eranskina" beteko da ("F" orri mota), baldin eta atxikipenen sarrerak edo konturako sarrerak Estatuaren eta foru ogasunen artean banatzen badira, eragiketa bolumenaren proportzioan.»

BAO — 015 zk. — 2024/01/22 — (BEZ) —

OGASUN ETA FINANTZEN FORU DIPUTATUAREN 4/2024 FORU AGINDUA, URTARRILAREN 11KOA. HONEN BIDEZ, BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGAREN ARAUBIDE BEREZI ERRAZTUKO ZEINU, INDIZE ETA MODULUAK ONESTEN DIRA 2024. URTERAKO.

Abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuko 1. artikulua bidez onetsi zen Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Araudiaren 37. artikularekin bat etorriz, zerga horren araubide berezi erraztua aplikatuko zaie berriaz zehazten diren jarduerari.

Foru agindu honen xedea zera da: araubide erraztuaren alderdi zehatzenak arautzea 2024. urterako, aurreko urtean Zergaren araubide berezi erraztuan aplikatutako moduluak eta jarraibideak jarraituz.

Bizkaiko Lurralde Historikoaren eremuan, zerga zentsuei buruzko arautegian zergapekoen zentsuan biltzen diren zerga egoerak ezarri ditu, eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide berezi erraztuari uko egitea edo araubide horri dagokion ezeztapena horietarikoak dira. Bata zein bestea ondoreak izan behar dituzten egutegiko urteko apirilaren 25era arte egin daitezke.

BAO — 015 zk. — 2024/01/22 — (BESTE BATZUK) —

OGASUN ETA FINANTZEN FORU DIPUTATUAREN 5/2024 FORU AGINDUA, URTARRILAREN 11KOA, MARTXOAREN 31KO 632/2017 FORU AGINDUA ALDATZEN DUENA. FORU AGINDU HORREN BIDEZ, 289 EREDUA ONESTEN DA, ELKARRI EMAN BEHARREKO LAGUNTZAREN ESPARRUAN FINANTZA-KONTUEI BURUZ URTERO EGIN BEHARREKO AITORPEN INFORMATIBOA EGITEKO DENA.

Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren martxoaren 31ko 632/2017 Foru Aginduaren bidez, 289 ereduak onetsi zen, elkarriz eman beharreko laguntzaren esparruan finantza-kontuei buruz urtero egin beharreko aitorpen informatiboari buruzkoa.

Aipatutako 632/2017 Foru Aginduaren I. eta II. eranskinetan bi zerrenda jasotzen ziren: batetik, finantza erakundeek 289 ereduaren aitortu behar dituzten egoiliar fiskalen herrialde edo jurisdikzioen zerrenda, eta, bestetik, azaroaren 13ko 1021/2015 Errege Dekretuaren eranskineko VIII. sekzioaren D.4 apartatuaren arabera «jurisdikzio partehartzailetzat» jotzen diren herrialde edo jurisdikzioen zerrenda.

Orain, foru-agindu honen bidez, aipatutako 632/2017 Foru Aginduaren I. eta II. eranskinen edukari Tunisia gehitu zaio, 2023ko abenduaren 1etik jasota baitago bi zerrendetan.


BAO — 018 zk. — 2024/01/25 — (BESTE BATZUK) — **OGASUN ETA FINANTZEN FORU DIPUTATUAREN 26/2024 FORU AGINDUA, URTARRILAREN 22KOA, BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO ZERGA-IKUSKAPENENKO PROZEDURA ETA JARDUKETETAN ESKUMENAK MUGATZEARI BURUZKOA.**

Ekainaren 29ko 1694/2005 Foru Aginduaren bidez, orduko Ogasun eta Finantzen foru-diputatuak finantza-ikuskatzaileen eta zerga-ikuskatzaileordeen eskumenen eremua mugatu zuen, garai hartan indarrean zegoen Ogasun eta Finantza Sailaren Egitura Organikoari buruzko Erregelamenduaren laugarren xedapen gehigarriak emandako ahalmena erabiliz (martxoaren 16ko 38/2004 Foru Dekretuaren bidez onartu zen erregelamendu hori).

Kontuan hartu behar da eskumen horiek ezarri zirenetik denbora luzea igaro dela, behin baino gehiagotan aldatu dela Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-ikuskapenaren Araudia (Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 24ko 5/2012 Dekretuaren bidez onetsia), ikuskapen-prozedura berriak sortu direla, informazioa aztertu eta tratatzea errazten duten tresna informatikoak erabiltzen direla eta unitate funtzionalak sortuz lana espezializatu dela. hori guztia aintzat hartuta, aipatutako foru-aginduaren edukia aldatu behar da gaur egun dauden ikuskapen-prozeduren erregulazio eta sistematizazio berrira egokitzeko.

Ogasun eta Finantza Sailaren Egitura Organikoari buruzko Erregelamenduak -urtarrilaren 28ko 3/2020 Foru Dekretuaren bidez onetsia- 3. artikulua a) letran ezartzen duenaren arabera, Ogasun eta Finantzen Foru Sailaren titularrari zergen ikuskaritzaren antolamendu funtzionala dagokio, ikuskatzaileen eskumenen mugatzea barne.



GAO — 002 zk. — 2024/01/03 — (HITZARMENA) — 

GIPIZKOAKO FORU ALDUNDIKO OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA ETA BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIAREN ARTEKO HITZARMENA, ZERGA INFORMAZIOA LAGATZEAREN INGURUAN.

2023ko abenduaren 13an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuaren eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren arteko hitzarmena sinatu zen, zerga informazioa lagatzeko. Hitzarmen horren testu osoa jarraian txertatzen da.

BILDU DIRA

Alde batetik, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko presidentea, bere ordezkartizan kontseilukidea, Vicente Guilarte Gutiérrez jaun txit prestua, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren 2023ko uztailaren 19ko osoko bilkurak hartu zuen Erabakiaren (1.20 zk.) arabera izendatua, Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 585. artikulua esleitzen dizkion eskumenak baliatuta, eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren ordezkartizan, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 598.1 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Eta bestetik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuduko foru diputatua, Jokin Perona Lerchundi jauna, foru diputatuak izendatzeari buruzko ekainaren 30eko 5/2023 Foru Dekretua betez (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 127. zk., 2023ko uztailaren 1ekoa).

Beharrezkoa den lege gaitasuna eta legitimazioa aitortu dizkiote elkarri Lankidetzaz Hitzarmen hau sinatzeko, eta, horretarako, honako hau

ADIERAZI DUTE

Lehenengoa. Espainiako Konstituzioaren 122. artikulua ezartzen duenez, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia botere horren gobernu organoa da eta Auzitegi Goreneko presidentea izango du buru. Era berean, Botere Judizialari buruzko uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren (aurrerantzean, BJLO) 104.2 eta 558. artikuluek xedatzen dute Botere Judiziala gobernatzea eskumena nazio lurralde osoan duen Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari dagokiola; bere presidentea, BJLOren 105. artikuluekin bat, nazioko lehenengo agintari judiziala da, eta, BJLOren 585. eta 598. artikuluen arabera, Botere Judizialaren eta haren gobernu organoaren ordezkartza du.

Bigarrena. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren 2002ko otsailaren 20ko osoko bilkurak «Puntu Neutro Judiziala» –organo judizialei kontsultak egitea eta organo horiek administrazio publikoak, profesionalen elkargoak, finantza erakundeak eta erregistroak bezalako hirugarren entitateekin interkonektatzea ahalbidetzen duen zerbitzu plataforma batean oinarritutako komunikazio sare bat– eratzea baimendu zuen. Izapideak bideratzeko denbora arteak laburtzea da horren helburua, horretarako, justizia osatzen duten kolektiboetresnak eta zerbitzuak eskainita, gai judizialak izapidetzan efizienteagoak eta eraginkorragoak izan daitezken.

Puntu Neutro Judizialaren helburu nagusiak honako hauek dira: organo judizialak kudeatzeko laguntza ematea; epaileari laguntzeko zerbitzuak ematea; gobernu organoen kudeaketa automatizatzea; eta Justizia Administrazioek erabiltzen dituzten informatika zerbitzuen arteko bateragarritasuna eta elkarreragingarritasuna erraztea.

Hirugarrena. Puntu Neutro Judiziala antolatzeko, hitzarmenak sinatu dira jardun judizialaren esparruan beren datu baseak atzitzea baimentzen duten erakundeekin, atzitzeko modua eta erabilera arautuz, komunikazio sare horren eta barne duen plataformaren bidez jarduketak judizialak egitea erraztu, betiere horrelakoak baimentzen dituen ebazpen prozesala eman eta gero.

Era berean, efizientzia eta eraginkortasun arrazoiak direla eta, baita banakako hitzarmen guztiak dagokion erakunde publikoak ez ezik, Justizia Ministerioak, Defentsa Ministerioak eta Estatuko Fiskaltza Nagusiak sinatu behar izatea saihesteko ere, horiekin guztiekin 2022ko urriaren 5eko Esparru Hitzarmena izapidetu da, Puntu Neutro Judizialeko zerbitzu plataforma erabiltzeko; bertan jaso dira guztien konpromisoak, Puntu Neutro Judizialaren bidez kontsulta daitezkeen datu baseak eta eman daitekeen informazioa atzitzeari dagokionez, baita jarduketak prozesalak komunikazio sare horren bidez eta barne duen plataformaren bidez izapidetzeari dagokionez ere.

Era berean, Europako Fiskaltzarekin Puntu Neutro Judizialaren erabilerari buruzko Lankidetzaz Hitzarmena sinatu da; horren bidez ezarri nahi da alderdi bien arteko lankidetzarako esparrua, aipatu plataforma atzitzeari dagokionez, Europako Fiskaltzak Espainian –legez baimenduta– BJKNrekin hitzarmena sinatu duten administrazioen eta erakundeen datu baseetatik informazioa eskuratzea eskatzen duten funtzioak betetzen dituenetan.

Gipuzkoako Lurralde Historikoan, horrelako informazioa Ogasun eta Finantza Departamentuak EAeri informazioa lagatzeko Hitzarmena, 2005eko maiatzaren 20an sinatua, oinarri hartuta ematen zen lehenago; izan ere, zerga datuak organo jurisdikzionalei komunikatzea ezartzen eta arautzen duen hitzarmen hura hitzarmen honek ordeztuko du.

Laugarrena. Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuak, eta horiei dagozkien jardun esparruak eta eginkizunak finkatzeko ekainaren 30eko 4/2023 Foru Dekretuak (6/2023 Foru Dekretuak aldatuak) 11. artikuluan ezartzen duenez, Ogasun eta Finantza Departamentuari dagokio zerga administrazioari dagozkion jardun esparrua eta horri lotutako eginkizunak.

Arau hori betez, aipatutako Ogasun eta Finantza Departamentuak zergapekoengandik zerga izaerazko informazioa jasotzen du; informazio hori zergapekoek beren legezko eginbeharrak betez ematen dute, Administrazio Publikoek agindu zaizkien eginkizunak eta eskumenak betetzeko asmoz eskatuta.

Bosgarrena. Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiak Justizia Administrazioarekin era eraginkorrean lankidetzan aritu nahi du, indarrean dagoen lege esparruan datuak organo judizialei lagatzea bultzatuz eta bizkortuz.

Seigarrena. Administrazio Publikoek, haien erakunde publikoak eta haien lotutako edo haien mendeko zuzenbide publikoko entitateek, beren eskumen esparruan, hitzarmenak sina ditzakete zuzenbide publikoko beste subjektu batzuekin –ez du esan nahi haien eskumenen titulartasuna lagatzen dutenik– kudeaketa publikoaren eraginkortasuna hobetzeko eta bitarteko eta zerbitzu publikoak Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean (aurrerantzean, SPAJL) ezarritako edukiarekin eta izapideekin batera erabiltzea errazteko.

Horiek horrela, alderdi sinatzaileei esleitutako eskumenak eraginkortasunez baliatzeko arrazoiek informazioa emateko sistema ezartzea justifikatzen dute, organo judizialek beren eginkizunak arin betetzeko behar duten informazioa eskura dezaten administrazio publiko bietan lehendik dauden baliabide materialak eta giza baliabideak erabiliz, eta, beraz, Hitzarmen hau aplikatzearen ondorioz administrazio horien kostuak areagotu gabe.

Nolanahi ere, hitzarmen honen aplikazio eremuko informazioa herritarren oinarrizko eskubideak –norberaren eta familiaren ohore eta intimitaterakoa, baita datu pertsonalen babesarakoa, Espainiako Konstituzioaren 18. artikuluko 1. eta 4. apartatueta ezarritakoak– errespetatuz emango da beti; hori guztia, honako hauean aurreikusitako moduan: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamendua (2016ko apirilaren 27ko Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituena eta 95/46/EE Zuzentaraua, Datuak babesteko Erregelamendu Orokorra, indargabetzen duena); datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan; eta maiatzaren 26ko 7/2021 Lege Organikoan, arau-hauste penalak prebenitzeko, detektatzeko, ikertzeko eta epaitzeko eta zehapen penalak betearazteko tratatutako datu pertsonalak babesteari buruzkoan.

Zazpigarrena. Hori guztia dela eta, alderdi biek Hitzarmen hau sinatzea erabaki dute, honako klausula hauen arabera klausulak ...

GAO — 003 zk. — 2024/01/04 — (BESTE BATZUK) —

2/2023 FORU ARAUA, ABENDUAREN 21EKOA, ZEINAREN BIDEZ ALDATZEN BAITIRA MARTXOAREN 8KO 2/2005 FORU ARAU OROKORRA, GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ZERGEI BURUZKOA, KONTSEILUAREN 2021EKO MARTXOAREN 22KO 2021/514 (EB) ZUZENTARAUAREN TRANSPOSIZIOA EGITEKO (ZUZENTARAU HORREK 2011/16/EB ZUZENTARAU ALDATZEN DU, FISKALITATEAREN ARLOK LANKIDETZA ADMINISTRATIBOARI BURUZKOA), BAI ETA BESTE ZERGA ARAU BATZUK ERE.

AKATSEN ZUZENKETA

Goian aipatu foru arauaren euskarazko testuan, 2023ko abenduaren 28ko 248 zk. duen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutakoan, akats bat antzemanenez, jarraian agertzen den eran zuzentzen da:

Artikulu bakarreko bosgarren apartatuan,

—Hurrengo hau dioenean:

«Hamargarren xedapen gehigarriaren 1. eta 5. apartatuak honela geratzen dira idatzita.»

—Beste hau esan behar du:

«Hemezortzigarren xedapen gehigarriaren 1. eta 3. apartatuak honela geratzen dira idatzita.»

GAO — 009 zk. — 2024/01/12 — (BESTE BATZUK) —

2/2024 FORU AGINDUA, URTARRILAREN 6KOKA, ZEINAREN BIDEZ ALDATZEN BAITA 412/2014 FORU AGINDUA, UZTAILAREN 7KOA, ZERGAPEKOEN ERROLDAN ALTA HARTZEKO ETA HELBIDEA, DATU PERTSONALAK ETA HARREMANETARAKOAK ALDATZEKO 030 AITORPEN EREDUA ONESTEN DUENA.

Uztailaren 7ko 412/2014 Foru Aginduaren bidez, zergapekoen erroldan alta hartzeko eta helbidea, datu pertsonalak eta harremanetarako datuak aldatzeko 030 eredia onetsi zen.

Irailaren 15eko 444/2022 Foru Aginduak aldaketak sartu zituen eredu horretan, eduki jakin batzuk haren bidez lortu nahi den informazio hornidurari begira egokitzeke.

Bestalde, abenduaren 12ko 56/2023 Foru Dekretuak, zenbait zerga erregelamendu aldatzen dituenak, aldaketak sartu ditu, duela gutxi, abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Zerga betebeharrak formal jakin batzuk geratzen dituen Erregelamenduan, eta, besteak beste, zerga egoitzaren aldaketari dagozkion betebeharrak ukitu ditu, 23. artikuluan araututakoak, hain zuzen.

Aldaketa horien ondorioz, aurrerantzean pertsona fisiko guztiak erabili ahal izango dute 030 eredia egoitza fiskalaren aldaketa komunikatzeko, baita enpresaburuen, profesionalen eta atxikitzaileen erroldan inskribatuta daudeneke ere, zeinek orain arte 036 eredia aurkeztu beharra baitzuten aldaketa horren berri emateko.

Araudiaren aldaketa horrek beharrezko egiten du uztailaren 7ko 412/2014 Foru Aginduaren artikulua ere zentzu berean aldatzea.

GAO — 009 zk. — 2024/01/12 — (SZ) —

4/2024 FORU AGINDUA, URTARRILAREN 10EKOA, ZEINAREN BIDEZ ALDATZEN BAITA 240/2019 FORU AGINDUA, MAIATZAREN 22KOA, SOZIJATEEN GAINEKO ZERGAN EZARRITAKO 20R EREDUA ONESTEN DUENA.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 114.3 artikulua xedatzen du ezen bategiteak, zatiketak, aktibo ekarpenak, balore trukeak, edo aktibo eta pasibo osoaren lagapenak egiteko nahiz europar sozietate baten edo europar sozietate kooperatibo baten helbide soziala Europar Batasuneko estatu batetik bestera aldatzeko, nahitaezkoa dela Zerga Administrazioari adieraztea, erregelamenduz ezarritako moduan eta epean, araubide berezia aplikatzea aukeratzen dela.

Zehazki, ekainaren 16ko 17/2015 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua 42. artikuluan ezartzen du non eta zein epetan komunikatu behar den araubide berezia aplikatzea aukeratzen dela. Orobat, obligazio hori zeinek duten eta komunikazioaren edukia zein den ere ezartzen du.

Xedapen horiek garatzeko, maiatzaren 22ko 240/2019 Foru Agindua onetsi zen. Agindu horrek 20R eredia onetsi zuen, hain zuzen ere, bategiteak, zatiketak, aktibo ekarpenak, balore trukeak eta aktibo eta pasibo osoaren lagapenak egitean, nahiz europar sozietate baten edo europar sozietate kooperatibo baten helbide soziala Europar Batasuneko estatu batetik beste batera aldatzean sozietateen gaineko zergan ezarritako araubide berezia aplikatzearen aldeko aukera komunikatzeko erabili beharrekoa.

Orain, zerga informazio ahalik eta zehatzena eta momentu bakoitzeko araubidera ahalik eta egokituena lortzeko, beharrezkoa da 20R eredia eguneratzea haren barruan honako hauek sartuz: kuota likidoan %50eko muga duten kenkarien taldea, urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 67. artikuluan arautua, eta TicketBai ezartzeko kenkaria, aipatutako foru arauaren hogeita bigarren xedapen gehigarrian arautua. Horrekin bi helburu lortu nahi dira: kontrasterako informazio ahalik eta osatuena izatea eta errekerimendu kopurua gutxitzea.

Adierazitakoagatik, jarraian aldatzen da maiatzaren 22ko 240/2019 Foru Aginduaren 20R ereduaren eranskina, aipatutako informazioa jaso dezan.

GAO — 012 zk. — 2024/01/17 — (BESTE BATZUK) —

9/2024 FORU AGINDUA, URTARRILAREN 15EKOA, ZEINAREN BIDEZ ALDATZEN BAITA ABENDUAREN 29KO 530/2020 FORU AGINDUA, «ELKAR LAGUNTZAREN ESPARRUAN FINANTZA KONTUEI BURUZ INFORMATZEKO URTEKO AITORPENA» IZENA DUEN 289 EREDUA ONESTEN DUENA.

Abenduaren 12ko 547/2023 Foru Aginduaren bidez aldatu egin zen 530/2020 Foru Agindua, abenduaren 29koa, «Elkar laguntzaren esparruan finantza kontuei buruz informatzeko urteko aitorpena» izena duen 289 eredia onesten duena, 289 ereduaren I. eta II. eranskinen edukia eguneratzea helburu hartuta. Zehazki, 2024ko ekitalditik aurrera informazioa zein beste herrialderekin trukatu den zerrendan sartzea zuen helburu, 2024an 2023. urteari buruz aurkeztu behar den aitorpenean lehen aldiz aplikatzeko.

Zerrenda horietan Tunisia utzi zen kanpoan, eta 2023ko abenduaren 1eko dataz bi zerrendetan agertu behar du nahitaez. Beraz, zilegi da eranskin horiek aldatzea, aipatu gabe utzitako herrialdea barruan sartzeko.

GAO — 015 zk. — 2024/01/22 — (BESTE BATZUK) —

11/2024 FORU AGINDUA, URTARRILAREN 17KOA, ZEINAREN BIDEZ ALDATZEN BAITA 614/2021 FORU AGINDUA, AZAROAREN 15EKOA, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUKO ZERGA ORDEZKARIEN ERROLDA ARAUTZEN DUENA.

Azaroaren 15eko 614/2021 Foru Aginduak Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko zerga ordezkarien errolda arautzea du xede. Haren erregulazioak erroldan inskribatzeko prozedura eta haren kudeaketa eta funtzionamendua hartzen ditu barne, eta haren helburua da ezarrita uztea hirugarren pertsona eta entitateen izenean Ogasun eta Finantza Departamentuaren aurrean egiten diren zerga arloko jarduketetan ordezkaritza frogatu beharra dagoela.

VI. kapituluak, bere aldetik, ordezkaritza profesionalari buruz dihardu. Ordezkaritza mota hau modalitate espezifiko gisa jasotzen da, eta zerga kudeaketan eragin gehien duen ordezkaritzetako bat dugu.

Haren aplikazio praktikoak agerian utzi du beharrezkoa dela inskripzioaren ondorioei buruzko zenbait alderdi arautzea, ekainaren 24ko 286/2023 Foru Aginduan onartutako 001-MP ordezkaritza erabiliz, eskaera puntualak aurkezteko aukera emateko helburuarekin.

EHAA**EUSKAL HERRIKO
AGINTARITZAREN ALDIZKARIA****EHAA — 004 zk. — 2024/01/05 — (AURREKONTUAK) —** **21/2023 LEGEA, ABENDUAREN 22KOA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO 2024. URTEKO AURREKONTU OROKORRAK ONARTZEN DITUENA.****HUTS-ZUZENKETA.**


Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariari buruzko abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 18.2.a) artikulua ezartzen duenez, aldizkariaren argitalpena prestatzerakoan egiten diren hutsak, baldin eta dokumentuaren edukia aldatzen badute edo zalantzak sortzen badituzte, Jaurlearitzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarreko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, ofizioz nahiz organo edo entitate interesdunak eskatuta.

Era horretako hutsak aurkitu dira Euskal Autonomia Erkidegoko 2024. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 22ko 21/2023 Legean. Lege hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen 2023ko abenduaren 29an (247. zk.). Hori dela eta, dagokion zuzenketa egiten da hemen.

EHAA — 014 zk. — 2024/01/18 — (EZKO) — **2/2024 DEKRETUA, URTARRILAREN 11KOA, LEHENDAKARIARENA, ZEINAREN BIDEZ IZENDATZEN BAITIRA UDALEK ZERGA KOORDINAZIORAKO ORGANOAN DITUZTEN ORDEZKARIAK.**

Zerga Bateratze, Koordinazio eta Elkarlanari buruzko maiatzaren 30eko 3/1989 Legearen 16. artikulua 4. paragrafoan ezarritakoaren arabera, Lehendakariaren azaroaren 24ko 32/2019 Dekretuaren bitartez Zerga Koordinaziorako Organoen udalen ordezkariak izendatu ziren.

2023ko maiatzaren 28ko udal-hauteskundeen ondoren, Euskadiko Udalen Elkartearen Batzorde Eragileak 2024ko urtarrilaren 9ko bilkuran erabaki du Lehendakariari proposatzea Zerga Koordinaziorako Organoan parte hartuko duten euskal udalen ordezkariak izendatzea.



NAFARROAKO Aldizkari Ofiziala

NAO — 008 zk. — 2024/01/11 — (BESTE BATZUK) —

87/2023 FORU AGINDUA, ABENDUAREN 27KOA, EKONOMIA ETA OGASUNeko KONTSEILARIAK EMANA, ZEINAREN BIDEZ ONESTEN BAITA 030 EREDUA, "HELBIDEA EDO DATU PERTSONALAK ALDATU IZANAREN JAKINARAZPENA" IZENEOA.

Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren 37.3 artikulua ezartzen duenez, zergapekoak helbidearen aldaketa jakinarazi behar dio zerga administrazioari, berariazko adierazpen baten bidez.

Berariazko adierazpen hori egiteko 030 eredia erabiltzen da, "Helbide aldaketaren edo norberaren edo familiakoen datuen aldaketaren berri ematea. Bikote egonkorren Erregistro fiskala" izenekoa, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Kontseilariaren apirilaren 4ko 117/2014 Foru Aginduaren bidez onetsitakoa.

Foru aginduak 2. artikuluan adierazten du eredu hori erabiliko dela, halaber, norberaren edo familiakoen beste datu batzuen aldaketaren berri emateko, identifikazio fiskaleko zenbakia eskatzeko, bikote egonkorren erregistro fiskalean izena emateko izapideak egiteko eta ezkontzaren edo bikote egonkorren araubide ekonomikoaren gaineko itunak aurkezteko.

Foru aginduak indarra hartu zuenetik hainbat aldaketa gertatu dira, araudikoak nahiz bestelakoak, eta beharrezkoa da, beraz, eredu berri bat onestea.

Zehazki, apirilaren 14ko 27/2021 Foru Dekretuak bikote egonkorren erregistro bakarria sortu zuen eta, horrela, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazioa edo Foru Berria aldatu eta eguneratzeko apirilaren 4ko 21/2019 Foru Legearen azken xedapenetako lehenaren agindua bete zen. Erregistro hori izaera administratiboko erregistro publiko bat da, non inskribatzen ahal diren, hala nahi izanez gero, Nafarroako Foru Berriaren arabera osatutako bikote egonkorren egintzak, publizitatearen ondorioetarako eta frogabide gisa. Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren hogeita batgarren xedapen gehigarriak ezartzen duenez, Nafarroako Foru Komunitateko bikote egonkorren erregistro bakarrean izena emanik dagoen bikote egonkorretako kideak ezkontideen parekoak dira ondorio fiskaletarako.

Parekatze fiskal hori izan zuen helburu, halaber, otsailaren 19ko 73/2014 Foru Aginduaren bidez sortu zen bikote egonkorren erregistro fiskalak. Horrenbestez, Zenbait zerga aldatzeari eta beste tributu neurri batzuk aldatzeari buruzko abenduaren 29ko 19/2021 Foru Legearen xedapen indargabetzaileak indargabetzen ditu, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, bai 73/2014 Foru Agindua, bai 117/2014 Foru Aginduan bikote egonkorren erregistroaz egiten diren aipamenak. Geroago, Zenbait zerga aldatzeari eta beste tributu neurri batzuk aldatzeari buruzko abenduaren 28ko 36/2022 Foru Legearen azken xedapenetako bigarrenak 2024ko urtarrilaren 1era arte atzeratu zuen indargabetze hori, erregistro fiskalean izena emanik egon, eta ondorio fiskaletarako ezkontideen parekoak izaten segitu nahi zuten bikote egonkorrek beste urte bat izan zezaten Nafarroako bikote egonkorren erregistro bakarrean izena emateko, edo aplikatzekoa zaien araudi zibilaren arabera dagokion erregistroan.

Beste alde batetik, urte hauetan gizartea eskatzen hasi da komunikazio bide arinagoak erabili ahal izatea Administrazioarekiko harremanetan. Eskaera hori aintzat harturik, telefono mugikorraren eta posta elektronikoaren bidezko komunikaziorako, Nafarroako Foru Ogasunak beste bide batzuk gaitu ditu, eta horregatik gelditu dira horiek 030 ereditutik kanpo, informazio hori aurkezteko bideak ez bikoizteko eta balizko kontraesanak saihesteko.

Genero ikuspegia inprimaketan eta araudian txertatu beharra beste arrazoi bat da 030 eredia eta hura arautzen duen foru agindua beste modu batera idazteko.

NAO — 014 zk. — 2024/01/18 — (BESTE BATZUK) —

ABENDUAREN 26KO 22/2023 FORU LEGEAN, ZENBAIT ZERGA ALDATU ETA BESTE TRIBUTU-NEURRI BATZUK HARTZEARI BURUZKOAN.

AKATS ZUZENKETA

Akats bat atzeman da abenduaren 26ko 22/2023 Foru Legean, Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzkoan, zeina 2023ko abenduaren 29ko 269. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen. Horrenbestez, honako zuzenketa hau egiten da:

Zazpigarren artikulua hamaikagarren apartatuan, honako hau esan ordez:

"Hamaika.-Hogeita hemeretzigarren xedapen gehigarria gehitzea, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

"Hogeita hemeretzigarren xedapen gehigarria.-Tributu-zorra geroratzeko edo zatikatze 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera egiten diren eskaerei aplikatu beharreko neurri berariazkoak.

Tributu-zorra geroratzeko edo zatikatze egiten diren eskaerei, baldin eta diru-bilketaren kudeaketa lana tributuen arloan eskumena duen departamentuari badagokio, hogeita hamazazpigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa aplikatuko zaie".

Honako hau esan behar du:

"Hamaika.-Berrogeigarren xedapen gehigarria gehitzea, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

"Berrogeigarren xedapen gehigarria.–Tributu-zorra geroratzeko edo zatikatze 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera egiten diren eskaerei aplikatu beharreko neurri berariazkoak.

Tributu-zorra geroratzeko edo zatikatze 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera egiten diren eskaerei, horren diru-bilketa kudeatzeko zeregina tributuen arloan eskudun den departamentuari dagokionean, hogeita hamazazpigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa aplikatuko zaie".

NAO — 014 zk. — 2024/01/18 — (APZ) —

84/2023 FORU AGINDUA, ABENDUAREN 11KOA, EKONOMIA ETA OGASUNeko KONTSEILARIAK EMANA, ZEINAREN BIDEZ ONESTEN BAITA 430 EREDUA, "ASEGURU PRIMEN GAINeko ZERGA. AUTOLIKIDAZIOA" IZENekoA.

Aseguru primen gaineko zerga araututa dago Neurri Fiskalei, Administratiboei eta Arlo Sozialekoei buruzko abenduaren 30eko 13/1996 Legearen 12. artikuluan. Lurralde erkideko arau hori Nafarroan aplikatzeko da, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren laugarren xedapen gehigarria aplikatuz.

Lege horren 12. artikulua adierazten du subjektu pasiboek zerga horren aitortpena aurkeztu beharko dutela hiler, eta dagokion tributu-zorra zehaztu eta ordaindu beharko dutela.

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen artean indarrean den Hitzarmen Ekonomikoaren 37. artikulua xedatzen du zer kasutan egokituko zaion Nafarroari Aseguru primen gaineko Zergaren ordainarazpena. Azkenean ezartzen du Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak zerga horien aitortpena eta ordaintzak egiteko ereduak onesten ahalko dituela, eta likidazio-aldi bakoitzean ordaintzeko epeak finkatzen ahalko dituela, Estatuako Administrazioak ezartzen dituen epeen antzera, funtsean.

Ahalmen hori erabiliz, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak, irailaren 27ko 302/2006 Foru Aginduaren bidez, Aseguru Primen gaineko Zergaren hileko aitortpen-likidazioaren 430 ereduaren onetsi zuten.

Onetsi zenetik, hainbat arau-aldaketa sartu dira indarrean. Haietatik azpimarragarria da kendu dela "zergadunaren ordezkaria" figura, Aseguru eta berraseguru entitateen antolamenduari, gainbegiratzeari eta kaudimenari buruzko zuzendaritzaren 14ko 20/2015 Legearen bidez. Horrez gain, lege horrek berak ezabatu egin zuen Europako esparru ekonomikoko beste estatu kide batean, Espainia ez beste batean, ezarritako aseguru entitateek zuten betebeharra, Espainian ordezkari fiskal bat izendatzeko, zerga horrengatik dituzten zerga betebeharrak betetzeko. Estatuaren 2021eko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 11/2020 Legeak zergaren karga-tasa ehuneko seitek ehuneko zortzira igo zuen.

Zergaren autolikidazio ereduaren aldaketa horietara egokitzeko, foru agindu honen xedea da 430 eredu berri bat onestea, "Aseguru primen gaineko zerga. Autolikidazioa".

Gainera, zuzendaritzaren 17ko 25/2006 Legearen bosgarren artikulua eta abenduaren 23ko 4/2008 Legearen bederatzigarren artikulua onartzen zituzten kuota-hobariak eta horien erregularizazioari buruzko aipamenak kendu dira. Ildo beretik, azken xedapen bigarrenak 480 ereduaren edukia "Aseguru primen gaineko zerga. Urteko aitortpen laburtua" aldatzen du, hoberi horiei dagokien laukia kentzeko.

Zerga, administrazio eta arlo sozialeko neurriari buruzko abenduaren 30eko 13/1996 Legearen 12. artikulua. Hamahirugarrena.1) atalak ahalmena ematen dio Ekonomia eta Ogasun Ministerioari zergaren subjektu pasiboek aurkeztu behar duten hileko autolikidazioaren tokia, modua, epeak eta inprimakiak zehazteko. Gaikuntza hori Nafarroako Gobernuak zerga gaitan eskumena duen departamentuko titularraren esku dela ulertu behar da, Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorren 6.1 artikuluari jarraiki.

NAO — 016 zk. — 2024/01/22 — (AURREKONTUAK) —

65/2023 FORU AGINDUA, URRIAREN 2KOA, EKONOMIA ETA OGASUNeko KONTSEILARIAK EMANA, 2023KO EKITALDIKO NAFARROAKO AURREKONTU OROKORRAK ETA BALANTZE KONTUAK IXTEKO, LIKIDATZEKO ETA 2024KO EKITALDIAN IREKITZEKO ARAUAK ONESTEN DITUENA.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 123. artikulua ezartzen duenez, Ekonomia eta Ogasun Departamentuari dagokio erregelamendu ahalmena erabiltzea zehaztu daitezkeen kontuen eta kontabilitate publikoari buruzko gainerako agiriaren egitura, justifikazioa, tramitazioa eta kontu-ematea. Horren ondorioz, beharrezkoa da, aurreko urteetan bezala, onestea Nafarroako Aurrekontu Orokorra eta Balantze Kontuak ixteko eta likidatzeko arauak, 2023ko ekitaldirako, bai eta 2024ko ekitaldian irekitzeko arauak ere.

NAO — 022 zk. — 2024/01/30 — (BEZ) —

1/2024 FORU AGINDUA, URTARRILAREN 12KOA, EKONOMIA ETA OGASUNeko KONTSEILARIAK EMANA, ZEINAREN BIDEZ 2024. URTERAKO GARATZEN BAITA BALIO ERANTSIAREN GAINeko ZERGAREN ARAUBIDE ERRAZTUA.

Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen 67. eta 68. artikuluek araubide berezi erraztua arautzen dute, eta haren garapena martxoaren 8ko 86/1993 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Zergaren Erregelamenduaren 23. artikuluan eta hurrengoetan jasotzen da.

Erregelamenduaren bidez egindako garapena alderdi jakin batzuetan osatu behar da, eta, xede horrekin, erregelamenduaren 23.etik 31.era bitarteko artikuluek berariazko gaikuntzak jasotzen dituzte zerga arloan eskumena duen departamentuaren titularrarentzat horiek arautzeko.

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren 32. artikuluan ezarritakoarekin bat, balio erantsiaren gaineko zerga (aurrerantzean, BEZ) ordainarazteko, estatuko lurraldean une bakoitzean indarrean dauden oinarriko printzipio, arau substantibo eta formal berberak aplikatu behar ditu Nafarroak.

Estatuan, abenduaren 19ko HFP/1359/2023 Aginduaren bidez garatu ziren, 2024rako, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zenbatespen objektiboko metodoa eta balio erantsiaren gaineko zergaren araubide berezi erraztua.

Hitzarmenari jarraiki, Nafarroan aplikatzeko da arau horren edukia, 2024rako balio erantsiaren gaineko zergaren araubide erraztuari dagokionez.

Hala ere, HFP/1359/2023 Agindua Nafarroan aplikatzeko, zenbait egokitzapen egin behar dira, eta egokitzapen horiek foru agindu honetan jasotzen dira, emandako gaikuntzez baliatuta.

Hala, 1. artikuluan ezartzen du balio erantsiaren gaineko zergaren araubide erraztua Nafarroan aplikatuko dela HFP/1359/2023 Aginduaren 1.1 artikuluan jasotako jardueretarako, eta eduki horrekin bat, baina zenbait salbuespen edo argibide eginda.

Lehendabizi, HFP/1359/2023 Aginduaren 1.1 artikulua 653.2 epigrafea biltzen du araubide erraztua aplikatzen duten jardueren artean: "Material eta tresna elektrikoak, elektronikoak, etxetresna elektrikoak eta argindarra ez den beste energiaren batekin ibiltzen diren etxerako beste tresna batzuen eta sukalderako altzarien txikizkako merkataritza". Bestalde, HFP/1359/2023 Aginduaren 2.1 artikulua epigrafe bera biltzen du pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren zenbatespen objektiboan sartzeko moduko jardura gisa, eta, kasu horretan, BEZaren baliokidetasun-errekarguaren araubidea da aplikatzekoa. Argitu behar da, eta horregatik argitzen du foru agindu honek, ezen 653.2 epigrafearen kasuan, BEZaren araubide erraztua aplikatuko zaiola jardura honi soilik: "Bere jarduerako artikuluen konponketa, 653.2 epigrafean matrikulatutako txikizkako merkatariek egina". Hala dago jasota HFP/1359/2023 Aginduaren II. eranskinean ere, non ezartzen baitira balio erantsiaren gaineko zergaren araubide berezi erraztuko indizeak eta moduluak.

Bestalde, ez dira berdinak maiatzaren 28ko 7/1996 Foru Legearen lehen ataleko 6. saila (foru lege horren bidez, ekonomia-jardueren gaineko zergaren tarifak eta jarraibidea arautzen dira) eta irailaren 28ko 1175/1990 Legegintzako Errege Dekretuaren 6. saila (legegintzako errege dekretu horren bidez, ekonomia-jardueren gaineko zergaren tarifak eta jarraibidea onesten dira). Beraz, beharrezkoa da HFP/1359/2023 Aginduaren 1.1 artikulua edukia egokitzea Nafarroako EJZri buruzko araudian jasotako epigrafe eta izenetara.

Zehazki, Nafarroan, 673. epigrafea bakarrik dago, "Kafetegi eta tabernetako zerbitzuak" izenekoa, estatuko araudian ez bezala, non epigrafea bitan bananduta baitago: 673.1 "Kategoria bereziko kafetegiak eta tabernak" eta 673.2 "Bestelako kafetegiak eta tabernak". Foru agindu honek ezartzen du BEZaren araubide erraztua aplikatuko zaiola 673. epigrafeari ("Kafetegi eta tabernetako zerbitzuak") eta aplikatzekoak izanen dituela 673.2 epigrafeari dagozkion indizeak eta moduluak.

